


19. zenbakia
2001eko maiatza

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

UK



Asier Ormaza

Aktore profesionala, gehienontzako ezaguna
"Sorginen Laratza" saioko
bere agerraldiengatik

"la Caixa" Fundazioa

BAZTERTUAK integratzearen alde




Ekimen Sozialetarako laguntzak

2001eko maiatzaren 1etik uztailaren 1a arte

Marginazio egoeran edota gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden haur, gazte eta helduen integrazio sozio-laboralaren aldeko proiektuetarako laguntzak.

Deialdia diru-helbururik gabeko erakundeei zuzenduta dago.

Argibideak: **Telefonoa 902 22 30 40**
www.fundacio.lacaixa.es
www.lacaixa.es



Portu Zaharreko arrantzale bikotea berriro elkartuta gure artean. Leku batetik bestera ibili ondoren, gure gizon-emakume arrantzaleak Portu Zaharrera itzuli dira. Elkarrekin jarri dituzte azkenean, eta bisitariak konturatu dira zoriontsuago daudela horrela.

Argazkia: Mikel Martinez

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntaritate E.B.E.
 HELBIDEA: Anesti 6, 4. solairua, 5. bidegela 48990 GETXO
 e-mail: aldizkari@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARITZA: Jokin Aguirre eta Mikel Martinez
 ERREDAKZIOA: Eusi Eskerra, Javi Gonzalez del Herrero
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Barro
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKHARIA: Goika Vázquez
 KOLABORATZAILERAK: Bitor Egurrela, Jokin de Pedro, Itxaso Arana, Gaika Escudero, Unai Elooriaga, Algotxoko Bertsolari Eskola, Akitze Kaminuaga, Xabier Pais, Izar de Cos, Kristina Sangoniz, Janire Korkostege
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugaña
 PUBLIZTATEA: Jon Gablondo eta Goika Oruea (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / ENPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Osorik edo zaitz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ezinez galarazirik dago.

© BOLUNTZARRETA

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta enpresa elkartearen TOPAGUNEko parte da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Erroza / Karitatea 1 / 94 491 43 57



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udaltaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaltako Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



TOPAGUNEa



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurilaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

IRAKURLE,

gogoratu gauza garrantzitsu bat,

UK berez doan banatzen jarraitzen dugu eta horrela jarraituko dugu. Aldizkaria jaso nahi duenak deitu baino (94 491 13 37) ez du egin behar. Hala ere, pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak:

BBK 2095 0022 00 91 02483676



[flasha]

APIRILAREN 22AN 800 TRITIKITILARI Getxotik ibili ziren kalez kale. Nahiz eta egunak lagundu ez, kaleetako eta tabernetako giroa pil-pilean egon zen. Festa hau modurik onenean bukatzeko mila berrehun pertsona bildu ziren Areetako Xake enparantzan antolatutako bazkarian “parte” hartzeko asmoz. Bazkarian, Kepa Arrizabalaga trikitilariari omenaldia egin zioten. Aupa Kepa!

[MAIATZA]

Ondo bizitzen ohituak gara, antza. Izan ere, maiatzaren etorreran giroaren goxatzea, paseatzeko eta hondartzarako lehen saio txoak egitea datorkiguke gogora hainbati,behintzat. Guxxiri, ostera, iradokiko lioke maiatzak urritasuna, laztasuna, estutasuna... Ba, horrelaxe izan ei da baserri giroetan oraintsu arte, esaera zaharrak hain biribilki baieztan duenez: “Maiatza, hire latza”

Arrazoa: aurreko urtean bildutako uztatik gutxi gelditzen zen ganbaran maiatzeko sasoiak; eta deskuiduan hotz egiten bazuen, egurretan ere erreserbak agorturik izaten ziren. Toki askotan esaten den erdi atsotitz erdi kontutxu hau horren adierazgarri da: “Maiatzean hotza uxatzeko, amonak aulkia sutan erre omen zuen”. Hori egin zuen amamak bereganaturik zuen harako hura: “Maiatza, hire latza!”

Maiatzerako gomendio batzuk: maiatzaren lehena, langileen eguna izateaz gain, egun egokia da esnea hartzeko, eta hori egiten duenak ez ei du urte osoan buruko minik izango. Beste bat: maiatzean ez da ilerik ebaki behar, urdindu egiten da-eta. Gainera, maiatzeko urak ilea haztekoak izaten dira: “Maiatzeko euriak edertu” Beraz, euri egunetan, estali barik irten, alde batera utzi euritakoak-eta: bustitzea on da maiatzean.

JOKIN DE PEDRO

San Jorge eta Herensugea

Garbiñe Ugarte
Brigadistak Nikaraguan

“Jende askok laguntzera goazela uste du eta erratuta daude: gu ez gara misiolariak; hango jendearekin lan egitera goaz. Elkarrekin egotea, ikuspegiak kontrastatzea eta ikastea dira gure helburuak”.

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkia: Mikel Martinez

Komite Internazionalisten kidea eta brigadista da Garbiñe Ugarte. Garbiñe Mexikon jaio zen eta zazpi urte zituela Euskal Herrira etorri zen. Hamaika urte daramatza Garbiñe Nikaraguara udaro joaten. Ez genekien oso ondo zertan datzan talde honek egiten duen lana eta, beraz, neska jator honengana jo genuen zertxobait gehiago jakiteko. Primeran azaldu zigun den-dena bere etxean Nikaraguako kafe katilukada gozo baten aurrean.

UK. Lehenengo eta behin, Garbiñe, zer dira “Komite Internazionalistak”?

G. Beno, elkartasun talde hau Nikaraguako iraultza Sandinistarekin batera jaio zen. Gaur egun hango egoera eta orokorrean neoliberalismoak sortzen dituen bidegabekeriak salatzen ditugu hemendik bertatik. “Brigadak” urte osoko lanaren ondorio eta iturburu dira, tokian tokiko egoera ezagutzeko modurik egokiena direlakoan.

UK. Eta zertan datza brigadisten lana?

G. Joaten garenean, ahal dugun neurrian parte hartzen dugu hango gizarte zibilak antolatzen dituen lanetan, egitasmoetan. Gainera, gaur egungo egoera oso larria da Nikaraguan eta brigadistok haiekin lan egitera goaz.

UK. Hortaz, “ONG” edo misiolarien antzeko lana egiten duzue?

G. Ez, ez dauka zer ikusirik, nahiz eta jende askok uste hori izan. Misiolarien lana errespetatzen dugun arren, gure lana ezberdina da; gu haiekin bat lan egitera goaz; ikuspegiak kontrastatzea, ikastera, elkar ezagutzera... Guk geuk ez dugu proiekturik sortzen hemendik, han bertan sortzen diren hantzen dugu parte.

UK. Eta norekin egiten duzue lan?

M. Munduko egoera bidezgabekarekin bat etorri ez eta ezkerreko proposamena egiten duten taldeekin, adibidez, emakumeen kolektiboekin eta herriko jendearekin oro har. Hango jendea oso jatorra da, oso zabala eta maitagarria. Oso kontzietziatuta daude



politika arloan, nahiz eta orain baliabide gutxi izan euren asmoak aurrera ateratzeko. Hala ere, herriko jendea ekintzak egiteko elkartzen da.

UK. Lehen esan diguzue gaur egungo egoera larria dela Nikaraguan. Laburtu ahal diguzue egoera hori lau hitzetan?

M. Oso gaxa da, baina saiatuko naiz. 1979an iraultza sandinista hasi zen. Iraultza hau herritik jaio zen eta herria bera izan zen hori bultzatu zuena. Estatu Batuek ez zuten iraultza hura onartu eta boikota eta gerra ezarri zuten. Gudak hamaika urte iraun zuen, horrek pobrezia nagusitu zuen eta 1990eko hauteskundeak egin zirenean, Sandinisten garaipena espero zen arren, ez zen horrela gertatu. Egoera jasanezina zen eta gerra berriro piztuko zen beldurrez, jende askok ez zien sandinisteei botoa eman; neoliberalak irabazi zuten. Orduz gero egoera are larriagoa da, gobernua kanpo zorrak ordaindu ahal izateko gastu sozialak murriztu zituelako, herrialdea hondamendira eramanez. Eta hau gutxi balitz, orain gainera ez dago oposizioerik sandinisten goi mailako ordezkari politikoak

ustelak direlako eta gobernuarekin hitzarmena sinatu dute boterea bi alderdi nagusi horien artean banatzeko. Orain lana gizarte zibiletik abiatuta egin daiteke eta horretan gabilta.

UK. Eta Nikaraguan bakarrik egiten duzue lan?

M. Ez; Nikaraguan, Txiapasen, Guatemalan..., behar den leku guztietan eta ahal dugun neurrian. Hara joaten garenean, urtean behin, nor bere bidaia eta bere gastuak ordaintzen ditu eta honek nolabait baldintzatzen gaitu.

UK. Zer egin beharko luke brigadista izan nahi duenak?

G. Argi eduki beharko luke zer den hau eta zertan datzan brigadistek egiten duten lana. Gero, joan baino lehen, prestakuntza taillerak egiten dira, lehen aipatu dugun moduan hemendik ere lan egiten delako. Azkenean, lan egitera abiatu. Benetan, esperientzia polita eta oso aberasgarria da. m

*Komite Internazionalistak T: 94 479 07 03

[UKronikak]

Galea-Miami

Testua: Unai Elorriaga



Mikel Martinez

“Kontua hori da: ez dugula pentsatzen eta kexatu egiten gara

Kontua da ez dakigula ia ezer baina kexatu egiten gara. Hau da, ezer ez dakigun arren, kexaka gabiltza beti (azken ideia hori da aurrekoaren ideia bera baina beste era batera esanda). Esate baterako, sagu bat ikusten dugu egongelako bazter batean eta kexaka hasten gara. Baina une batez pentsatzen badugu, ze kalte egin digu guri inoiz sagu batek? Ostera, poztasun handiak eman izan dizkigute saguek. Haur literaturan, adibidez, izarrak dira saguak eta zenbat irakurraldi dotore egin izan ditugu saguen kontura. Baina, hala ere, kexatu egiten gara; pentsatu barik kexatzen gara. Izan ere, bost minutu edo sei minutu pentsatzen emanez gero, ez genuke esango “hortik doa sagu kabroia” edo “atera osabaren eskopeta”.

Kontua hori da: ez dugula pentsatzen eta kexatu egiten gara eta biolentoak gara saguekin eta ia intsektu guztiekin; intsektuak pertsonak baino askozaz nobleagoak diren arren.

Burokraziarekin gauza bera. Mundu guztiak esaten du burokrazia txarra dela eta gaiztoa eta zoritxarrekoa. Mito hutsa da hori, baina. Jendeak dio politikoen seme-alabei baino ez dizkietela ematen Babes Ofizialeko etxebizitzak. Papeleoa desitxuratzen dutela politikoei eta euren seme-alabei edo lobei tokatzen zaiela etxea zozketan. Gezurra. Nik eskatu egin nuen

Babes Ofizialeko etxe bat eta ez daukat politikan senitartekorik. Orain dela hamar egun. Esan zidaten urtebete barru hasiko zirela etxeak egiten. Baina burokraziari esker, atzo deitu zidaten: etxea nirea zela, tokatu zitzaidala. Uste nuen, ordea, urtebete itxaron beharko nuela hartzeko, jakina. Ke ba. Gaur ekarri naute nire etxe berrira. 7 milioi ordaindu behar ditut. Harrigarriena ez da hori izan, hala eta guzti ere. Harrigarriena da txalet bat dela, hiru pisukoa, Galean.

Barrura sartu gara. Altzairu guztiak jarrita dauzka. Guztia burokraziari eta politikoei esker esan didate. Gero kexatu egiten gara. Ni neu ere kexatu naiz inoiz.

Orduan garajera joateko esan didate. Garajea ere badauka, beraz. Garajea kotxe handi bat ikusi dut, beltza. Norena da galdetu dut eta Zurea erantzun didate. Flipaduraren punturik gorenean atea zabaldu dut barrura sartzeko baina gizon bat egon da bertan. Sustoa hartu dut. Nor da galdetu dut eta Zure txoferra erantzun didate; dena omen dago etxearen prezioan. Orduan zeharo lasaitu, kotxearen atzeko partean sartu eta txoferrari agindu diot: Golf zelaira. Eta golf zelaian nago orain, hamabigarren zuloan, hain zuzen ere. m

Gazte Bidaiak 2001

Gazte Bidaiak



Holandatik Bizikletaz
Holanda en Bicicleta

Verdon Arroila Handira
El Gran Cañón del Verdon

Landetatik Bizikletaz
Las Landas en Bicicleta

Euskal Kostaldea Ezagutzen
Travesía de la Costa Vasca

Aurreinskripzioak: Apirilaren 30tik maiatzaren 11ra Gazte Informazio Bulegoetan
Preinscripción: del 30 de Abril al 11 de Mayo en Oficinas de Información Juvenil

18 eta 25 urte arteko gazteentzat
Para jóvenes entre 18 y 25 años



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura



Aurreinskripzioak egiteko eta argibide gehiago lortzeko deitu edo zuzendu gazteentzako zerbitzu eta informazio bulego hauetara:

Para hacer las preinscripciones y obtener más información puede llamar o dirigirse a los siguientes servicios y oficinas de información juvenil:

BILBAO
Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Kirol eta Gazteri
Zuzendaritza Nagusia
Gazteria
BILBAO
Gazteen Informazio eta
Dokumentazio Lurralde
Zentroa
Bizkaiko Foru Aldundia
BILBAO
Bilboko Udala
Yohn Jauregia
BILBAO
Alde Voluntariado

ARRIGORRIAGA
BARAKALDO
BASAURI
BERMEO
DURANGO
ERMUA
GERNIKA-LUMO
LEIOA
LEKETTO
MUNGIA
MUSKIZ
PORTUGALETE
SANTURTZI
SESTAO
ZALLA

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZO!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

MOROTXO

**Kantxa
Kizol moda**

**TORRENE
48990 ALGORTA
TF. 4911882**

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
TF: 460 90 31
48990 ALGORTA

ZERBITZU GUNEA

EVITAME S. A.
GETXOKO ANDRAMARI

- GASOLEOA ETXEAN **Camps**
- ITV AURREKOA
- NEUMATIKOAK
- MEKANIKA
- AUTOEN GARBIKETA
- OPARIAK
- PRENTSA
- ALDIZKARIAK
- ELIKAGAIK

Bilbo plentzia errepeidea, km 18
GETXOKO ANDRAMARI % 94 430 15 00

[kirola]

Skate "pool" berria


Patinatzeke igerilekuaren zabaltze party-a, M12

Jakin badakigu zenbat zale dituen surf kirolak, baina azken urteotan surf-aren semetzat hartu dezakegun skatea lekua hartuz doa Uribe Kostako kaleetan. Honen adibiderik garbiena Europa mailan skaterren lehengo postuetan aurkitu ditzakegun getxoztarrak. Jakin izan dugunez harrobi izugarria daukagu gure herrian eta horrelako profesionalak izanda guztiz beharrezkoa zuten haien saiakerak egiteko leku bat. Algortan orain dela urte mordoia daukagu Arrigunagako skate parkea (La Kantera) baina aurten berrikuntza bat ikus dezakegu bertan. Txus skater mitikoa eta patinatzeke inguruotan egin diren pisten bultzatzaile nagusiak, eta Algortako arkitekto batek patinatzeke pool edo igerileku bat diseinatu zuten aspaldian. Udalak ideia kontuan hartu zuen eta orain errealitate da pool-a. Itxuraz igerileku baten antza duen arren

bere zeregina ez da hori izango, gazteek bertan saiakera ugari egiteko aukera izango baitute. European dagoen mota honetako pista bakarra da, guztiz berritzailea. Baina zergatik igerileku itxura hau? Bada, skatea aldapetan jaio zen, surfa oinarri zuelarik. Denboraren joanean, amerikar surferrak, olaturik ez zutenean eta geldiegon behar zutenean, konturatu ziren igerileku baten forma eta olatuena oso antzekoak zirela. Gainera, hemen patinatzen duen jende asko surfaren munduarekin harreman zuzena du. Ba, esperientzia horretan oinarriturik igerileku itxurako pista hau jaio da.

Proiektu honen aurkezpena maiatzaren 12an, larunbatean, izango da. Beraz, skater profesionalak ikusi, jai eta ondo pasatzea gogoko baldin baduzu joan zaitetz maiatzaren 12an Arrigunagako skate parkera. m

Txus (ez zuen fotorik nahi), Getxoko skater mitikoa, kirol honen bultzatzailea eta La Kantera zein inauguratuko den pool edo igerileku berriaren sustatzailea




POOL PARTY

Maiatzak 12, larunbata
Arrigunagako La Kanteran
Goizeko 12etatik aurrera...

...Kontzertuak: Madriliko "Versus" eta Mungiako "Rose Mary Killers". Penintsula osoko skaterak, Europa mailako profesionalak eta seguru asko EEBBetako skaterak. Gaez, bideo emanaldiak ikusteko pantaila handia. Sorpresa ugari.

Mikel Martinez



Xabier Buenetxea

[ikerketak]

Natura arrainak

Xabier Buenetxeak Getxoko arrainen inbentarioa egingo du

Eskarmentu handia du Xabier Buenetxeak ingeniari forestalak era honetako lanetan. Izan ere, Getxon dabiltzan animalien inbentario bi eginak eta argitaratuak ditu: bata hegaztien inbentarioa eta bestea ugaztun eta narrastiena. Lanok, orain prestatzen hasia denaren moduan, herriko udalaren enkarguz egin ziren. Esku artean darabilen hirugarren lan honek alde batek arrain kontinental guztiak (hau da, ibai zein errekan bizi direnak) bilduko ditu, eta ez hori bakarrik, espezie hauen oparotasun indizea ere bai. Arrain bakoitzak bere fitxa izango du. Horrela ba, Boluen, Gobelan, Larrañazubi eta Kandelu erreka eta ibaietan, zonifikazioak egin ondoren, arrantza elektrikoaren bitartez espezie horiek identifikatuko ditu Xabierrek. Topatzen diren espezieak uren egoeraren adierazleak ere izango dira eta horrela Getxoko uren kalitatea ezagutu ahal izango da. Gainera Xabierrek uren analisi kimikoak ere egingo ditu.

Bestetik, itsasoan bizi diren espezie adierazgarrienak ere bilduko ditu egileak fitxategi honetan. Horretarako Iñaki Zugadi biologo eta buzo profesionalaren laguntza eta gure kostaldeko bere ezagutza handia baliatuko ditu.

Kanpo lana uda arte luzatuko da, ondoren datuen analisiak egingo ditu Xabierrek eta argitalpena udagienenean edo negu partean plazaratuko da. Eragozpen bakarra edizio honen eta aurretik argitaratutako inbentarioren tirada txikia da: 50 ale baino ez. Fitxategi formatuko inbentario hau ikastetxe eta liburategietan banatuko da, baina lan honek zabalpen handiagoa beharko luke. m

ENEKO
BAR ANUSIUS

Inportaziozko zerbezarik onenak
Terraza zabala
basarte'na
Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

SATISTEGI



ADITUAK GARA

PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA
% 94 46019 69



ALGORTA

dj.ak
antzerkia
erakusketak

k
r
i
m
e
a



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82


AREETA



Taberna
Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

jateko



urdaitegia • frutadenda • ellkagaiak

Amezti 4 - Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[pertsonaia]

Kepa Arrizabalaga panderoaren ahotsa



Getxon ospatu zen Trikitixa egunean Plentziko Kepa Arrizabalaga panderojolea omendu zuten. Kepa ondo ezagutzen duen Joseba Santxori hari buruzko berba batzuk eskatu genizkion.

Tri-ki-ti, tri-ki-ti, tri-ki-ti... Gatxa da jakiten gehiago nork emon deutson nori: Kepak panderoari, edo panderoak Kepari. Tri-ki-ti, tri-ki-ti... Kontua da bikote perfektua dala. Tri-ki-ti, tri-ki-ti... Kepa panderoa jotzen hasten danean, baztarrak dantzan hasten dira. Tri-ki-ti, tri-ki-ti... Kantuan hasten danean, barriz, haren doinua barruraino sartzen jatzu, belarriak politto gozatuaz. Tri-ki-ti, tri-ki-ti... Keparen panderoagazko erromantzea, bestetik, ez dogu atzo goizekoa. Tri-ki-ti, tri-ki-ti... Trikitirixa bikoteak sarri aldatu ditu: aita Tomas Arrizabalagaz hasi zan jotzen, gero Luis Bilbaogaz, geroago Andrakako errementari Rufino Arrolagaz eta gaur egun Roberto Etxebarria gatikarragaz. Tri-ki-ti, tri-ki-ti... Panderoari, ostera, ez deutso inoz adarrik imini. Tri-ki-ti... Adarra jo bai, arrimetan jakon edozein laguni joko deutso adarra; izan bere, Kepa jator, alai eta bromazalea da, inon jator, alai eta bromazalerik bada. Tri-ki-ti... Hauxe da despedidea... Tri-ki-ti... Hauxe da despedidea... Tri-ki-ti... Despedida honen tristea... Tri-ki-ti... Kepa jotzen hasi eta, dantzan hasten da jendea... Tri-ki-ti... Despedida honen tristea... Tri-ki-ti... Hauxe da despedidea... m

Testua: Joseba Santxo / Argazkia: Mikel Martinez

XVIII ESKULANGINTZA AZOKA FERIA DE ARTESANIA GETXO

némonica 902 16 00 26



OLEARRIAko EUSKAL BUSTINTZA MUSEOAN HARTUTAKO IRUDIA / IMAGEN TOMADA EN EL MUSEO DE ALFARERIA VACA DE OLEARRIA

(Carpa Plaza Estación Las Arenas)
Ekaina / Junio 1, 2, 3

11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00
300 ptas.





Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

LAINOA

Urgull 3, ALGORTA


Andoni Amas Etxeandia

ABOKATUA

- * Jaraunspenak-herentziak
- * Errenta aitortpenak
- * Enpresa txikien kontularitza
 - * Auto istripuak
 - * Trafiko isunak
- * Udal lizentzien tramitazioa
 - * Merkatal zein jabego ziuertagiriaren eskuraketa

Iturgitxi 6, Ionja (ALGORTA)
Tlf: 94 431 90 55

VILLABOTAS IATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[aisia]

Giroa taberna berriak

Sopelan *Laiak* eta Algortan *Patxeko Bi* zabalik



Jendez gainezka egon zen Sopelako Laiak taberna zabalte egunean

Lagunekin elkartzeko taberna berri bi zabaldu dituzte Uribe Kostan. Lehenengoa, "Patxeko bi", pasa den apirilaren 25ean Sarrikobaso kalean, lehen "Biok" izena zuena. Jendez gainezka egon zen taberna zabalte egunean; pintxoak berehala bukatu ziren batzuen zoritxarrrako. Zaila zen eskatzea baina ez ziren garagardoa eta giroa faltatu. Gauza berbera gertatu zen Sopelako "Laiak"en, Bentatxu kalean egun berean ireki zuten tabernan. Zortziretatik hamarrak arte

taberna jendez lepo egon zen. Bi ordu horietan 400 pintxo, eta 70 litro garagardo kontsumitu ziren eta jabeek gorriak ikusi zituzten zerbitu ahal izateko. Irekita daraman egun hauetan, "Laiak" modazko taberna bihurtu da Sopelan. Goizean, arratsaldean zein gauean bete-beterik egoten da lekua zabal zabala den arren. Arrakasta honen azalpenak bi: tabernan aurkitu daiteken giro jatorra eta dekorazioa; euskal museo txiki eta polit bat dirudi "Laiak". m

Lagunen arteko irekitaldia antolatut zuen Patxekok



Mikel Martinez



Ilusio handia jarri dute merkatariek azoka berrian

Algortako azoka zabalik

Inaugurazio ofiziala ekainaren hasieran


Gerra garaian aterpe moduan erabili izan zen eraikin honek, lehenengoz 1939an zabaldu zituen ateak. Azken urteotan, eraikinaren baldintza txarrak zirela-eta, bertako merkatariek azokaren zaharberritzearen aldeko apostua egin zuten, eta baita egin ere. Lanak urtebetez luzatu dira baina dagoeneko, martxan dago berriro ere azoka. Bertan, goiko solairuan kirol denda handi bat ezarri dute; erdikoan erosleak, arraindegia bi, arategi bi, lorendea, guardasolak konpontze-koa, okindegia eta kafetegia aurkituko ditu erosleak. Azpiko solairua supermerkatu bat prestatzen ari dira. Ekainean inaugurazio ofiziala. m

UK DJs sound session

Uribe kostako dj-en diskoa plazaratuko du UK-k

Gogoratuko duzue, UK aldzkariaren 17. zenbakian Uribe Kostako DJ-en inguruko erreportaia kaleratu genuen. Gai honek sortarazi duen arrakasta ikusirik, zerbait gehiago egin behar genuela pentsatu genuen. Ez da lehenengo aldiz UK aldzkaria diskoen ekoizpenari ekiten diola, iazko abenduan Bittor Egurrolaren kanta bilduma ateratu genuen. Oraingoan, estilo eta itxuraz erabat desberdineko diskoak argitaratzeko asmoa dugu, UK DJs.

Erreportaian atera genituenak eta besteren bat gehiagorekin "sound session" erakargarria biltzen ari gara. Merkaturan dauden honelako diskorik gehienak kantari ezagunen bertsiok nahastuak izaten dira baina gure disko honetan, ordea, lan sortu berriak egongo dira. DJ hauek euren sormena eta esperientzia erabilia erritmo, doinu kaferoak eta indartsuak biltzen dituzte, dantzatzeko, entzuteko, bizitza alaitzeko aproposak. m



BILBOMICRO

"1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen"

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

KURKUDI LIBURUDENDA

Euskarazko irakurgai guztiak!!

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

[begizorrotz]

Artea eskolan

Testua: Maddi Albizu



“Karpetetako irudiak zerbait estaltzeko ahalegina baino gehiago

Erreparatu al diezue inoiz neska-mutikoez eskolako apunteak gordetzeko erabiltzen dituzten karpeten irudiei? Oso gutxitan, ezta? Lasai, normala da eta. Egia esan, hamar eta hemezortzi urte bitartean dutenek, hau da, indioilarraren adina deritzon betebetean daudenek egindako edozeri, normalean, inor gutxik erreparatzen dio. Hain dira arraroak... Egin dezagun, bada, ahalegina.

Karpetak argazkiz, pegatinaz eta mota guztietako irudiz betetzeko ohitura ez da gaur egungo kontua. Nik gogoratzen dudanetik, behintzat, beti izan dira honelako adierazpen artistikoak. Artistikoak diot, bai, zeren batzuk benetako arte lanak baitira, ez dut esango Kapila Sixtinakoen parekoak direnik baina, tira, collage ederrak ikus daitezkeela bai, bai horixe.

Argi dago adierazpen modu hau, bereziki, adin horri berezkoa zaiola. Nerabezaroa zera da, zerbaiten bila gabiltzan aroa, gure identitatea, hain zuzen. Behin nerabezaroa bukatuz gero (hamasei, hamazazpi, hemezortzi urterekin...) identitate hori aurkitu eta, ondorioz, ez omen dugu geure burua inoren aurrean definitzeko premiarik somatzen. Karpetetako irudiak, beraz,

zerbait estaltzeko ahalegina baino (karpeten marka, kaka kolore itsusia, etab.) zerbait azaleratzeko saiakera da, besteei nortzuk eta nolakoak garen adierazteko premia sakonetik sortzen dena.

Karpetei begiratu gero, identitate anitz identifikatzen ditugu: nabarmenetako bat identitate politikoa da (nire garaian FMLNren pegatinak, Cher kantariaren argazki sonatua eta honelakoak itsatsi ohi ziren); ia hau bezain garrantzitsua da kirolariaren identitatea (surfa nagusi, nahiz eta, ezagututako ohol bakarra lixagailuaren oholak izan); bestalde, telebistazalea dugu (badira mila aldizkari telesailtako pertsonaiarik ospetsuenen argazkiak karpeten itsasteko eskaintzen dituztenak); hurrengo mota identitate bitxia da (gogoan daukat arma-denda zirudien karpeta bat, arma bildumagile batena, nonbait); azken mota, nola ez, gorputza gurtzen duena (mota honetan azpimota asko daude, modako aktorearen argazki ahalik eta handiena itsasten duena zein eremu pornografikoagoan sartzeraz auzartzen dena. Esan beharra dago, azken argazki mota hauek karpeten barruan itsasten direla gehienetan).

Denboraren poderioz, karpetak irudiz betetzeko ohitura desagertu egiten da, nerabezaroa atzean uzten ari garen seinale. m

Komuniñoa gaztaroaren hasiera

Lehenengo jaunartzea haurtzaroko lehenengo egoera-aldaketako ohikunea zen

Testua: Akaitze Kamiruaga

Aurten komunioa egingo duten umeak, aspalditik daude maiatzaren zain, hilabete honetan izango baita euren haurtzaroko gertaera garrantzitsuenetako bat.

Ilusio eta zirrara handiz itxaroten dute egun seinalatu hau. Egund honetan eurentzako izango dira opariak, eurak jantziko dituzte egun bakar baten erabiltzeko beren-beregi erositako traje dotoreak, azken baten, eurak izango dira egun honetako protagonista bakarrak.

Antzina ostera ez zegoen oparirik, ez zegoen traje dotorerik, eta are gitxiago egun bakar baterako egindakorik. Kasu batzuetan komunioa hartzeko erropa berriak egin arren, aurrerantzean domeketan eta jai-egunetan erabiltzeko modukoak izaten ziran beti. Antzina ez zegoen ospakizun berezirik, askotan komunioa astegunean egiten zan, goizean lehenengo orduko mezan eta ospakizun nahiko eta sobra izaten zan etxean edo

sakristian bertan ematen zitzairen txokolata eta barkiloak gosaltzea.

Baina erlijio aldetik suposatzen duenaz gain, lehenengo jaunartzeak beti izan du aparteko zentzu berezia, batez ere komunioa gaur egun baino beranduago egiten zenean (12-14 urte bitartean). Lehenengo jaunartzeak, haurtzaroko amaiera eta gaztaroaren hasiera markatzen zuen. Askotan entzun ditugun "komuniñoa egin duzu eta orain handi zara" edo "orain gizon egin zara" moduko esaldiek argi eta garbi adierazten dute egoera aldaketa hau. Bestalde mutilak praka laburrak alde batera utzi eta praka luzeak jzaten hasten ziren, eta hori pausu garrantzitsua zen eurentzat, honek markatzen baitzuen haurren eta gaztetxoaren arteko desberdintasuna.

Askotan edade honekin eskola uzteko garaia eta lanean hasteko unea heltzen zen. Horregatik komunioa egitea bizitzako lehe-

nengotariko egoera-aldaketako ohikunea zan. Zorionez, gaur egun komunioarekin lotutako kontuak bestelakoak dira, eta zentzu askotan txarrera egin badugu ere, behintzat aipatutako azken honetan onera egin dugula uste dut. m



Egun pasa ederra antolatuta zuten Eleizpekoak urteurrena ospatzeko

Eleizpe Eskaut Taldea

Taldeak 30. urte eman ditu Getxoko haurrak hezitzen

Baden-Powell britaniarrak 1908an sortutako erakundea da eskauta. Erakunde honek neska-mutilak talde hierarkizatuetan antolatuz, beren artean koalitate moralak eta kirolari lotuak garatzea zuen helburu. Orduetik hona denbora asko igaro da eta eskautismoan ere aldaketa nabariak eman dira. Gaur egun gurean taldeak ez dira hain zorrotzak eta eskaut taldeak umeak beren aisan balore batzuetan (el-

kartasuna, naturarekiko errespetua, kontsumismorik eza, euren kabuz baliatzen ikastea...) hezitzeko guneak dira. Horrelako taldea da Getxoko Eleizpe Eskaut Taldea. Talde hau Getxoko Andra Mari elizaren inguruan sortu zen duela hogeita hamar urte eta urteurren berezi hori ospatzeko, egun osoko jaialdia antolatuta zuten apirilaren 29an. Gaur egun taldean hamabost monitore dabilta 50 umeren

arduran. Umeak zortzi urterekin sartzen dira taldean eta hamazortzi bete arteko heziketa prozesua bizitzen dute. Prozesu hau bost mailatan banatzen da (koxkorrak, kaskondoak, oin-arinak, azkarrak eta azkenengo, trebeak) eta umeek maila hauek pasatu behar dituzte. Gero asko monitore moduan geratzen dira taldean bertan. Interesik izanez gero, onena euren eliza ondoko egoitzatik pasatzea da. m

NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal herria

BOZKATU 

CALENDOS RIKI

UMEAK GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

basurto

algorta S.L.


altzariak

telletxe 15, algorta

T: 460 71 62 - 460 42 44

xabier

argazkiak



Doctor Landa z/g

T: 94 676 03 09

SOPELA



Euskara irakasleak

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez

Pixkanaka pixkanaka bada ere, gure eskualdea euskalduntzen ari da eta horretan euskallegiek egiten duten lana zerikusirik handia dauka. Ehundaka lagun dabilta Uribe Kostan dauden 11 euskallegitan (bat pribatua da, AEK-k sei ditu eta beste laurak udal euskallegiak dira) jo eta ke euskara ikasten. Zatoz gurekin ba euskallegi hauek eta hango irakasleak ezagutzera.



Gorka Jauregizuria
GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

Historia: 1973an hasi zen eskolak hartzen magisteritza bukatu ondoren. Ea euskaldun-berri ala euskaldun zaharra zen galdetu genionean bera euskaldun *berri* zela erantzun zigun. Gorkak 48 urte ditu eta euskara irakasten egon den azkenengo 18 urtetan hainbat lekutatik pasatu da: Algortako gau eskolan hasi, AEK-n jarraitu eta ordutik Uribarrin, Santurtzin eta Portugaleten irakatsi zuen Getxora heldu baino lehen. **Pasadizoa:** “Gogoratzen dut nire ikasle bati behin gertatu zitzaiona. Bera lehenengo mailan zegoen eta oso gutxi zekien oraindik. Egun batean dendari euskaldun batengana joan zen 100 gramo txorizo erosteko asmoz eta zer nahi zuen ondo azaltzen ez zekien. Azkenean kilo oso bat eraman behar izan zuen etxera lotsa ematen ziolako dendariari aitortzea ez zela hura berak nahi zuena”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskarak berak erakartzen dizkit txikitako sentimenduak eta oroitzenak; hori da euskararen alde esan dezakedan hoberena... eta ez da gutxi”.


Euskallegiko datuak:
Helbidea: Lope de Vega, 12
Telefonoa: 94 464 62 99
460 ikasle eta 20 irakasle.



Naiara Olanar
PLENTZIAKO AEK: JENTILBASO

Historia: 23 urte baino ez ditu eta jada bi daramatza AEKn; iaz Plentzian eta aurtun Sopelan. Kazetaritza ikasi zuen Armintzako euskaldun-zahar jator honek euskararen munduan buru-belarri sartu baino lehen, baina hala eta guztiz ere ez dauka irakaskuntza uzteko asmorik. “Ondo nago AEKn” dio. **Pasadizoa:** Denbora gutxi daraman arren, Naiarak ezagutu ditu jada pertsona xebreak. “Gehien harritu ninduen ia izena eman zuen emakume bat izan zen. Bost seme-alaba zituen eta guztien partikularak ordaintzea oso garesti ateratzen zitzaiola zioen. Beraz, bera hasi zen euskallegian euskara ikasten gero bere seme-alabei irakatsi ahal izateko”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Hizkuntzek ateak irekitzen dituzte (irakurtzeko, jende gehiago ezagutzeko,...) eta beste aukera ugari ematen dizkizute”.


Euskallegiko datuak:
Helbidea: Kristo enparantza, 8
Telefonoa: 94 677 36 07
15 ikasle eta 2 irakasle



Jose Antonio Legarreta
ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Historia: 41 urte ditu eta 16 daramatza irakasle moduan, Erandion herriko udal euskallegia zabaldu zutenetik. Hala ere, Josean Bilbokoa da. Euskaldun-zahar baten semea den arren, berak euskaldun-berria dela dio. **Pasadizoa:** Orain dela urte batzuk, 72 urteko gizon bat apuntatu zen andrak nagusi ziren ikasgela batean eta aste bat pasatu ondoren, erritmoa mantentzea kostatzen zitzaionez, uztea erabaki zuen, matxista ez zela argi utzi ondoren. Orduan José Antonio bueltatu zion matrikularen dirua eta gizona, eskertzeko, 1.000 pezetako propina ematen saiatu zen. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskara da gure oinarririk sendoena”.

Euskallegiko datuak:
Helbidea: Bekoa ikastetxea, Desanexión kalea, 4 behe.
Telefonoa: 94 467 60 75
192 ikasle eta 8 irakasle



Alberto Hernández
GORLIZKO AEK: JENTILBASO

Historia: sopoloztar honek 29 urte ditu. Guraso erdaldunen semea da, baina erabat euskalduna Sopelako ikastolan ikasi baitzuen bi urte zituenetik aurrera. 1998an hasi zen eskolak ematen Algortako AEKn ordezkapen bat egiten eta orain bera da Gorlizen dauden irakasle bietako bat **Pasadizoa:** “Algortan irakasten nuenean baneukan ikasle bat euskara ikasteko inolako asmorik ez zuena. Berarekin berba egin nuen eta aitortu zidan bazegoela hor bere psikiatraren aginduz; berarentzako euskallegia talde terapia ezberdin bat zen”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskara da euskaldun egiten gaituena. Esaldia Oskorrirena da, baina ni neu erabat ados nago”.

Euskallegiko datuak:
Helbidea: Iberre Barri enparantza, 5.
Telefonoa: 94 677 36 46
18 ikasle eta 2 irakasle





Aitor Fernández de Martikorena
SOPELAKO AEK NIKOLA EUSKALTEGIA

Historia: Famatua egin da Uribe Kostako giro euskaldunean Sopolako Esaera Zaharren Txapelketaren aurkezlea denetik. 30 urte ditu eta 8 daramatza euskara irakasten AEKn, azkenengo biak Sopolan, karrera bukatu zuenetik. **Pasadizoa:** Klasean eduki dituen ikasleetaz gogoratzerakoan, Aitorrek ez du ahazten Estatu Batuetatik etorritako *yankia*. “Bi urte eman zituen hemen gure hizkuntza ikasten eta EGA azterketa ateratzen eta guzti saiatu zen. Ez zuen gaintitu, baina euskara “menperatzea” bai lortu zuen, ordea”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskara ikastea ez da soilik hizkuntza bat ikastea, euskaldunon komunitateko kide bihurtzea ere bada”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Enrike Urrutikoetxea, 12.
Telefonoa: 94 676 48 76
48 ikasle eta 5 irakasle



Garbiñe Herraiz
LEIOAKO AEK: LAMIAK

Historia: 28 urte ditu eta dagoeneko 6 daramatza euskara irakasten, magisteritza bukatu zuenetik. Euskaldunberri alai honek Bilboko AEKn ikasi eta euskaldundu bezain pronto klaseak ematen hasi zen Algortako AEKn. Orain poz-pozik dabil Leioan, oso lanpetuta egon arren. **Pasadizoa:** “Behin gizon bat gugana etorri zen esanez ez zekiela berbarik ere euskaraz, baina hiru hilabete baino ez zituela EGA ateratzeko. Guk miraririk ez genuela egiten argitu genion eta orduan gizonak zera kontatu zigun: orain dela hamar urte enpresan hamaika urte zituztela euskalduntzeko esan zietela langileei. Galdetu genionean ea zergatik ez zen lehenago etorri, ez zuela nagusiek esandakoa sinestu azaldu zigun”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Hizkuntza da kultura transmititzeko modu bakarra”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Luis Bilbao Libano kalea 8, behea.
Telefonoa: 94 464 60 63
80/90 ikasle inguru eta 5 irakasle.



Idoia Egurrola
ALGORTAKO AEK: LAUAXETA

Historia: Algortako Lauaxetako euskaltegiko irakasle eta arduraduna da. 32 urte ditu eta orain dela 9 hasi zen klaseak ematen 20 urte dituen euskaltegi ezagun honetan. **Pasadizoa:** “Euskaltegi honetan bota diren erdarakadak ospetsuak egin dira dagoeneko. Adibidez, behin irakasle batek “joango garete” esan zuen eta ordutik irakasleok ere erabiltzen dugu txantxatan. Edo, ezetz jakin zer esan nahi duen “Ez eulitu”? Ba, ez moskeatu; edo “Morenatuko gara”? Ba, beltzaran jarriko gara”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskara ez dakienak, nolabait behartzen zaitu erdaraz hitz egitera”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Iparbide 6.
Telefonoa: 94 430 47 34
Ikasle eta irakasle kopurua: 325 ikasle eta 12 irakasle.



Nekane Gallastegi
J. A. AGUIRRE EUSKALTEGIA

Historia: José Antonio Aguirre Euskaltegiko zuzendaria Getxokoa da. 34 urte ditu eta 13 daramatza klaseak ematen bere herrian, magisteritza bukatu zuenetik. **Pasadizoa:** “Euskaltegiko izena dela eta, inoiz deitu du jende erdaldunak ea José Antonio Aguirre jauna ba ote zegoen. Behin bati Aguirre hilda zegoela esan genion eta asko sentitzen zuela erantzun zigun. Zelako barreak egin genituen”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Aurten hizkuntza minoritarioen urtea da; aukera ona beraz euskara defenditzeko. Gurea bada, ezin dugu altxor hori galdu”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Algortako Etorbidea, 104.
Telefonoa: 94 460 66 71
300 ikasle inguru eta 11 irakasle

Iñaki Rodríguez
LEIOAKO UDAL EUSKALTEGIA

Historia: Santurtzikoa da eta 37 urte ditu. Euskal Filología ikasi eta, amaitzeaz zegoela, euskara irakasten hasi zen orain dela 14 urte. Lehenengo bost urteak Muskizeko udal euskaltegian eman zituen eta gainontzekoak Leioan. Iñaki euskaldunberria da eta dakien gehiena euskaltegietatik kanpo ikasi duela aitortzen du. **Pasadizoa:** “Oraindik gogoratzen dut euskaltegira mutil kolonbiar bi etorri zirela. Jakina, ez zekiten tutik ez euskaraz. Lehenengo egunean, klasean, batek horma baten idatzita ikusi zuen ‘gora euskadi askatuta’ ea zer esan nahi zuen galdetu zigun. Jende guztia barrezka hasi zen; gixajoa nahiko lotsatu zen”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskara jakiteak munduarekiko ikuspegia zabaltzen du”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Iparagirre Etorbidea, 78.
Telefonoa: 94 460 00 02
300 ikasle eta 15 irakasle.

Resu Zubizarreta
SOPELANAKO UDAL EUSKALTEGIA

Historia: 47 urte ditu eta orain dela 20 hasi zen klaseak ematen. Bizkaira heldu zenean sartu zen buru belarri euskararen munduan oñatziar euskaldun-zahar hau, hasiera batean AEKn eta, 1983.etik, udal euskaltegietan. 1989.etik Sopolako udal euskaltegian irakasten du. **Pasadizoa:** Aspaldian gizon batek atea jo zuen eta Resusek ireki zionean zera galdetu zion: “¿Esto es Euskaltzaindia?”. Irakasleek gogoratzen duten bakoitzean barre egiten dute. Beste hamaika daudela dio: “Beti diot apuntatuko ditudala eta inoiz ez dut egiten”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskara da zaindu behar dugun altxorrik preziatuena”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Enrike Urrutikoetxea 10.
Telefonoa: 94 676 31 54
140 ikasle eta 5 irakasle



Iruñe Etxebarria
ERROMOKO AEK: GANBARA

Historia: eskarmentu handiko irakaslea da; 43 urte baino ez dituen arren 23 daramatza klaseak ematen, beti AEKn eta beti ere Erromon. Herriko gau eskolan hasi zen eta euskaltegiak jaso dituen leku aldaketa guztietan egon da Iruñe. **Pasadizoa:** “Zerbait kontatzeko baino gehiago, nik aipatu nahiko nuke Erromon badirela ikasle asko, gero, denborekin irakasle bihurtu direnak. Lehenengo euskaltegian ikasi, EGA atera eta gero berriro jarraitzen dute hemen ikasi dutena irakasteko. Hori, nire ustez, oso garrantzitsua da eta Erromon betidanik gertatzen da, inon baino gehiago esan nuke”. **Euskararen aldeko esaldia:** “Euskaraz berba egin behar dugu. Euskara erabiltzeko da, bestelakoan, guk egiten dugun lana ez luke inolako zentzurik izango”.

Euskaltegiko datuak:
Helbidea: Kalamua, 11.
Telefonoa: 94 464 73 91
50 ikasle eta 4 irakasle




2002. urteko **Ibilaldia** San Nikolas Ikastolari antolatzea dagokionez, maiatzaren 15ean, arratsaldeko 7etan egingo dugun batzar informatiborako gonbidapena luzatzen dizuegu, nahi duzuen guztiok parte har dezazuen.

Anima zaitetzte, zuen laguntza beharrezkoa dugu eta!

Arene Azpi 15 / 48990 GETXO
T: 94 430 54 78-79 / Fax: 94 430 54 77 / E-mail: snikolas@ikatola.net



1



2



3

FedeMerino Isidro-ren omenezko irudiak

Hamar urte baino ez zituela hartu zuen eskuetan bere lehenengo kamara. Eta ordutik ez da gelditu. Algortakoa, betikoa; utzi dizkigun irudiek ondo islatzen dute hori. Fotografiako liburu bi argitaratu dizkiote, Bermeori buruzko irudiak jasotzen ditu bata, eta besteak Bilboko Arriagan izandako ekitaldietakoak. Euskalduna Jauregiko eta Guggenheim Museoko eraikitze lanen jarraipena egin du bere kamararekin. Orain Bilbo gaitzat hartuta, artxibo bat osatzen ari da. ^m



4



5



Patxi Zubizarreta

“Ileapaindegian irakur daitezkeen liburuak idaztea nahi nuke”

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel Martinez

Patxi Zubizarretarena (Ordizia, 1964) atzetik aurrera eginiko bilakaera bat izan da. 1991ean Gabrielle helduentzako nobela kaleratu zuen, baina handik aurrera haur eta gazte literaturan sartu zen buru-belarri. Zeinek ez ditu ezagutzen Eztia eta ozpina, Usoa, hegan etorritako neskatoa, Atlas sentimentala, Matias Ploffen erabakia, Gizon izandako mutila...? Orain berriro helduen literaturara bueltatu da Alberdaniaren eskutik kaleratu duen *Jeans-ak hozkailuan* nobelarekin.

Zer moduzkoa izan da itzulera?

Desiratua, banuen gogoia helduen literatura-ri berriro heltzeko. Tartean Bihotzerre ipuin bilduma txikia atera nuen, baina, batez ere, arnas handiko zerbait idazteko gogoia nukan. Alde horretatik, *Jeans-ak hozkailuan* nobela desiratua eta gozatua izan da.

Haur eta gazte literaturan ere antzeko sentimentuetaz hitz egiten dugu beti: bakardadea, beldurra, maitasuna edo porrota. Baina sintaxi mailan mugatu egiten gaitu. Horregatik, banuen beste esparru batzuk jorratzeko gogoia, nahiz eta nobela honek neurri batean mugatu egin ninduen. Rakel protagonista idazkari xume bat da, eta bere estiloa ezin zen oso anpuloa edo literarioegia izan. Literario..., ohitu gaituzten zentzuan aipatzen dut. Ematen du gauzak modu nahiko barrokoan esatea izan behar duela literaturak. Oraindik jende askok irudipen hori dauka, eta nire ustez iritzi nahiko okerra da. Horregatik, istorioaren hautaketa kontzientea izan da, baina mugatzailea ere. Beti esan da literatura askatasunaren esparrua dela. Neurri batean hala da, baina aukeraketa bat egin behar duzu eta horrek mugatu egiten zaitu. Horretaz kontziente izatea komeni da.

Patxi Zubizarreta haur eta gazte literaturari esker egin da ezagun. Klitxe horretatik askatzea ere bilatu duzu?

Horrek ez nau gehiegi arduratzen. Dena den,

psikologikoki ere haur eta gazte literaturatik urrundu nahi nuen, klitxetik baino gehiago literatura mota horretatik. Aukera batzuk eta beste askatasun batzuk sentitu nahi nituen. Haur eta gazte literaturak atsegin handiak eman eta ematen dizkit, askotan bere laburtasunagatik beragatik. Helduen literaturak, berriz, beste arrisku batzuk ditu.

Nobela espero bezala atera al zaizu?

Literatur bidaia horretan abiatu nintzenez, ez nekien zer atera zitekeen hortik. Emaitzarekin oso pozik geratzea ere ez dut uste komeni denik, baina oro har oso pozik geratu naiz.

Zelan bururatu zitzaizun istorioa?

Ustekabean etorri zitzaidan. Nobelan kontatzen denaren antzera, bidaia bat egin nuen New Yorketik San Frantziskora furgoneta batean beste hamalau lagunekin. Bidaia luzea izan zen, furgoneta barruan denbora gehiegi pasa genuen, eta besteen presentzia ere dexente astuna egin zitzaidan. Elementu horiek lotuz, bakardadea, bidaia eta besteen presentzia, konturatu gabe istorioa osatuz joan nintzen. Hau da, bidaia baten kontaktan oinarrituz, giza-harremanei buruzko hausnarketa txiki bat egitea.

Dena den, agertzen dituzun giza-harremanak ez dira oso baikorrak...

Ez nuke hori esango. Beharbada, nahiko barregarri agertzen dira, nire ustez izaten diren moduan. Askotan ezintasun handia sentitzen dugu edo dut harremanak egiterakoan. Agian, horregatik ez dira hain pertsonaia baikorrak. Baina barregarritasun horren barruan badago puntu bat: eridikulua esateko euskaraz barregarri hitzak badu irribar-

“Ematen du literaturak gauzak modu nahiko barrokoan esatea izan behar duela. Oraindik jende askok irudipen hori dauka, eta nire ustez iritzi nahiko okerra da”


rearen zentzua. Ezintasun horri barre egin behar zaio, bestela oso zaila baita bizitzea.

Horrela ikusten al duzu gaur egungo gizartea, ezintasunez beterik?

Bai. Gurasoen edo agureen istorioak entzuten ditudanean, berehala konturatzen naiz oso belaunaldi mengela tokatu zaigula. Ez dakit gaur egun arazoak askozaz psikologikoak diren, lehen ere baziren horrelakoak, baina gurea alde horretatik plastikozkoagoa da. Sentimenduak ere plastikozkoagoak iruditzen zaizkit. Literaturak hausnarketa egiteko aukera eskaintzen digu, munduko gainontzeko bazterretan harremanak nolakoak diren aztertzei aukera. Dena den, galdera nahiko konplexua da. Beharbada horregatik idazten dut, ez dakidalako oso ondo horri erantzuten.

Hurrengo nobela noizko?

Ez dut presarik izan nahi. Behin eremu horretan sartu eta badut jarraitzeko gogoia, baina ez dakit nola. Zentzu positiboan krisi literario batean nagoela esango nuke, ez baitakit oso ondo zein den literaturaren tokia gaur egun. Liburuaren benetan ikustezina da, nahiko gauza arraroa eta arraroentzako objektu bihurtzen da. Errealitatera jeitsi nahi nuke. Albert Boadellak garai batean esaten zuen antzerkia publikoarengandik urrundu egin dela eta jeitsi egin behar duela. Horregatik da Rakel dena. Idazle moduan protagonistak xumeak izatea gustatzen zait, “ileapaindegian irakurri daitezkeen liburuak” idatzi. Kontua zera da, gero ez dakidala hori nola egin. Orain esku artean badut material dexente eta ziur nago zeezer aterako dela. Ez dakit ipuin bat izango den edo nobela bat, baina zerbait segurua. ^m



Bidaia baten kontaktan oinarrituz, giza-harremanei buruzko hausnarketa bat da Patxi Zubizarretak argitaratu duen azkenengo nobela: *Jeans-ak hozkailuan*.

Asier Ormaza

10 urte daramatza aktore profesional bezala lanean baina 31 urte dituen getxoztar honek ideiak oso argi ditu. ETB 1eko *Sorginen Laratza* saioan ikusten dugu ia gauero baina nahiz eta popularitate maila handia lortu, ez du bere bizitza pribatua alde batera utzi nahi.

Testua: Kristina Sangroniz / Argazkia: Mikel Martinez

Zergatik zara aktore?

Gustura egiten dudan lana hori delako, beraz pentsatuz eta txikitatik ere udalekue-tan egindako antzerkien ondoren, jendeak animatuta azkeneko bultzada eman zidaten. Aktore izan ez banintz seguru asko publizis-ta izango nintzateke, edota sormenaren munduarekin zerikusia duen zeozer.

Zelan hasi zinen *Sorginen Laratza* saioan lan egiten?

Duela bi urte telebistatik deitu zidan Itziarrek, orain gure zuzendaria denak. Berak aipatu zidan programa egiteko gogoia zuela eta ia prest nengoen. Hasiera batean programa egitera astero birritan joaten nintzen. Aurten “full time” lan egitea proposatu zidaten eta antzerki aldetik nahiko libre nengoenez, baietz esan nuen.

Honekin batera ba al duzu beste proiekturik esku artean?

Ba, bai, orain enpresa berri sortu dugu Joseba Apaolazak, Patxi Barkok eta hirurok eta hortxe badaukagu lanik. Uda honetarako Tanttaka antzerki taldearekin “Muerte accidental de un anarquista” prestatuko dugu eta, beno ba, horiek dira gutxi gorabehera hortxe ditudan proiektuak.

Horrenbeste gauza egiteko denborarik izaten al duzu?

Bai, bai, kontua antolatzea da, nolabait organitzatzea. Baina bai, orain arte, behintzat, denbora nahikoa izan dut.

Lortu duzun popularitate maila horrek zer-nolako eragina izan du zure bizitza pribatuan?

Ez du inolako eraginik izan, nik nire erritmo berberarekin jarraitzen dut, hau da, nire lagunekin egoten naiz eta bizitza normala egiten dut. Hala ere, tabernetan jendea hurbiltzen zait eta nik, egia esan, nahiko normal tratatzen ditut. Uste dut jendeari ilusioa egiten diola norbait ezaguna kaletik ikustea, nik txikitan ilusio bera izaten nuen.

Kamara baten aurrean jartzean, zer sentitzen duzu? Nerbioak sentitzen al dituzu oraindik? Egia esan nahiko lasaia izan naiz beti, lankideek ere hala esaten didate. Antzerkian eta horrela, kontzentrazio puntu bat izaten dut eta nahiko serio jartzen naiz. Baina gero kamara aurrean edo taula gainean ez naiz bereziki urduri jartzen, nahiko lasai hartzen dut, gustura.

Zaila al da zuzenean egiten den programa batean jendeari barre eragitea?

Hala esaten dute adituek baina nire ustez negarra eragitea askoz ere zailagoa da. Zaila da ikuslearengan emozioak eragitea, azken batean horixe da aktorearen lana.

Zer-nolako harremana daukazu *Sorginen Laratza*-ko beste aktoreekin?

Programan orokorrean oso rollo ona dago eta oso giro ona egoten da lankideen artean; bai erredakzioekin, teknikariekin... guztiekin. Ederto pasatzen dugu saioa egiten eta nik uste dut hori etxetako pantailetan islatzen dela.

Norekin gustatuko litzaizuke lan egitea?

Euskal Herrian, egia esan, nahiko zorte handia izan dut, jende askotxorekin egiten dut lan, bai telebistan eta baita antzerkian ere;

beraz, Euskal Herrian dauden aktoreekin gustura moldatu naiz eta errepikatu egingo nuke. Baina esan behar dut ez naizela mitozalea, orduan, nahiago dut erantzutea gustura egingo nukeela akziozko lanen bat, edota historikoa.

Zinean lan egin duzu, telebistan eta antzerkian baita. Zein duzu gustukoen?

Hiruretan gustora ibili naiz eta oso ezberdina dira. Nik egiten dudan telebista antzerkiarekin zerikusi handia dauka, zuzenean delako eta pertsonaiak mamitzen ditugulako. Nik uste dut publikoarekin kontaktua izatea oso inportantea dela eta aukera hori antzerkiak bakarrik ematen digu, beno *Sorginen Laratza*-k ere aukera bera ematen digu, publikoa badugulako. Baina ez nuke hiruretatik bat aukeratuko, gustura ibiltzen bainaiz hiruretako edozeinetan, bata ez du bestea zertan baztertu behar.

Uribe Kostan dauden herri mailako hedabideei buruz zer-nolako iritzia duzu?

Uste du beharrezko eta txalogarria dela horrelako aukerak izatea. Hemen jende pilo bat bizi da eta horien eskariak bete behar dira. Beraz, ekimen hauek aurrera ateratzen baldin badira publikoa dagoelako izango da.

Zerbaiti egin behar izan al diozu uko zeure profesioagatik?

Momentuz gauza askori ez, egia esan aktore izateko erabakia hartu nuenean banekien gauza batzuk alde batera utzi beharko nituela, baina bizitza pertsonala lantzen saiatzen naiz daukadan gauzarik inportanteena delako. m

“Ederto pasatzen dugu saioa [*Sorginen Laratza*] egiten eta nik uste dut hori pantailan islatzen dela”



Iraganez doa denbora* beti / ARRIGUNAGA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Gureberbakere ³ ZER ESAN

Testua: Xabi Bilbao

Gauzak opéztzeko
(eskaintzeko) zer esan

- gúre dozu ...? / gúre dozuz ...?
- bér dozu ...?
- érongozu / jángozu / édangozu ...?
- áutxi!

Adibidek:

- Gúre dozu ardu apútxu bet?
- Ez, ez, ez atara ezer, laster jon ber dot eta.
- Edo béste zéoser? Naranjade edo?
- Ure, básutxu bet ur, egarri kénduteko.

- Jángozu gaztai apur bet bere, ezta?
- Kéba, kéba, laster bázkaldu in ber dot etzén.
- Próbazu, zatítxu bet bákarrik, ebagi dot eta.

- Áutxi, éroizuz ónek pipérrak, gure solókok dírez eta.
- Itxízu, eztoztezu zetan emon ber ezer bere.
- Bai ba, éroizuz, guk etxerako lar dekuz eta.
- Bazara gero, beti émoten.
- Bestalá emon, eskatu báño!

Gauzak eskátuteko zer esan.

- émongostezu, atárákostezu, ítxikostezu ...?
- bádekozu ...? Bádekozuz ...? emóstezu, imiñístezu, atarástezu

Adibidek:

- Baltz bi eta zurítoxtu bet.
- Hámen dekozuez.

- Bádekozu ogerlekorik teléfonon sárututeko?
- Bai, badekot áren. Zénbet ber dozuz?
- Ítxikostezu automóbille?
- Óstábere? Nora jon ber dozu ba?
- Ésangotzut gero. Zuk itxiostezu giltze.

- Ze inúsentekeki zauz íkusten? Emóstezu mándo!
- Mándo? Ze mándo?
- Telebisiñoko! Ekázu ointxe!
- Telebisiñoko mando? Eztot ikusi aspaldin ...

Berba bárrik:

opetzi: eskaini.
áutxi: tori.
apútxu: apurtxo.
éroizu: eroan (eraman) ezazu.
solo: soro, ortu.
bestalá: hobe (esklamazioetan erabiltzen da).
áren: -ren bat, -ren batzuk.
óstábere: osterá ere, berriro.

[akabuko punte]

Ignacio

Zabala

Ille onetan Ignacio Zabala ekar datzue ona gure okollura. Beraas eta bere andreas egon gintxesan euron etzen. Ignaciok euskara nahiko galduta dekola diño, baye makiña bat gause konta oskunen: beran bearra ixen sana, selao san antziñeko Getxo, gerra denporako pasadisuk,... Beste egun baten, falte barik, bere andreas iñ gure dogu berba, berak bere badeko kontateko anedoterik eta.

Testua: Alberto Gonzalez Castro / Erretratua: Mikel Martinez

Non yayo sintxen eta nos?

Getxon, oiñ larogeta bost urte. Beti emen bixi nas. Estasiñon yayo nintxen ni. Eta estasiñotik ona etzera.

Eta fameli, nongo da?

Nire ama Orozkoko eta aitte Urdulizko. Aittite Iziar-ko eta amama Elorriyoko.

Seiñ bear iñ dosu?

Berrogeita amaka urte Trubi Pardun, makallo saltzen, almasenan, Uribitarten eta gero, Axpen, urten barik. Amairu urtegas ara joan nintxen. Makallo etortzen san fresko da emen, sikatu, gatzittu, ... Makallo "Islas Faroé"tik etorten san, da Noruega da Groenlandiatik bebai, ortik. Ordun fardo bat, berrogetamar kilo, ehun da piku, ehun da ogetabost peseta eta oiñ, makallo kilo bat bi mile peseta.

Nos bixi da obeto, len ala oiñ?

Nik Getxo, esautu dot telefono barik, automobil barik, esebes; senbat txori, gorroiek, artu dot nik or kaminon, erretxiñe imini eta gorroiek koyuten. Bixi, oiñ bixi da obeto. Baña ordun biximodu..., denok ixeten ginen fameli, fameli, danak, e! Seoser pasaten bayatzun, ausokok ensegida etorten siren. Laiak bere, senbat ixeten siren? bost edo sei ileran, ni akordaten nas, emen Getxon. Gaur au solo, bier bestena, baña danak batera, danak, e! Oiñ es dau. Len makal basaus, ensegida ona laguntzen. Oiñ jausten sara or bidean, da jaramonik es dotzue itten.

Gerra denporan ser pasa san Getxon? Akordaten sara?

Or Malakaten ixen san "refugio", bean sartu eta an bean egon abioiak pasa arten, beraño yon eta


an jente dusti egoten san sartuta. Jente asko kanpotik etorri san ona, baña emetik kanpora es siren joan asko, e! Solotatik bere jente asko joan san, eskapa eun. Eta akaba sanen, ya es san ixen len les, inos bes, klaru! Ya emen asi siren gorrotoak eta gausak, e!, baña len inos bes, emekon arten. Aik denporak! Gogorak ixen siren aik, gogorak! Emen italianok egon siren, eskolatan euden kuartela.

Nik eskapa nendun gerra denporan, eta joan nintxen Sopuerta aldetik-eta. Da, "ser iñgo dot nik; aitte ta ama ya sartxu eukitte dot" eta ori pentsatzen buelta iñ nintxen. Bueno, etorri ginen Lutxanara, an prisioneruk ya; pasa gendun erreka eta ona, sera... "Erandio La Campa"n. Bueno, an egon ginen pues, es dakitx, bi mile prisioneru igual, da esan yeuskuen: "Bueno, ahora vamos a Berango y el que no tenga algún problema de sangre en su haber quedará libre después de declarar". Bueno, ni posik. Etorri ginen, da tiki-tiki-ta eta... entzun jente "estrema derecha" esaten: "hijos de tal, hijos de tal", esaten euden. Heldu ginen Fadura ondoan, da, bueno! Es dakitx, berrogei furgoneta, italianok, ta, ala! Danak barrure! No! Ordun, nik entzun neutzen bateri: "Yo, yo no he estado en el frente" esaten yeutzen kapitan bateri. "A, pues nada, quedense en esta cuadrilla, e!, si no ha estado usted en el frente quedese con esta cuadrilla". Ordun, nik ori entzun neunen, se iñ neun?, salto emon neun, dzak! eta sartu kuadrillen. Da or egon siren Getxoko gixon bi, Paco Landeta da Eustaquio Saitua, da ordun, nik esan neuntzen eta etorri siren. Yon siren furgoneta danak eta gu, senbat ixengo giñen?... amabi gixon jon giñen. "Bueno ahora vamos al Capitán General a Algorta y se declara allí y a casa" Eta or guardiek aurretik eta gu atzetik eta

egon siren ordun pagok loragas, olan, pago itzelak, eta Eustaquio an lotu san eta dzak! etzera joan san, da Paco Landeta ta ni Algortara urbildu giñenen, onek artu eun bidea San Inazioruntz joateko da ni beste kale batetik eskapade iñ. Baña etorri nintxen trenbidetik, e! Da or trenbiden egon giñen Paco Landeta... bera an lotu san nigas laguntzen gauieñ arten, se entzuten geuntzen italianori abestuten eta Paco Landeta nigas egon san gauieñ arten, eta ordun etzera sartu nintxen. Eta kittu! Ni es nas egon prisioneru inon beres. Furgonetatan yon sirenak prisioneru yon siren Gasteizera, "campo de concentración"era. Algortara yon sirenak ensegida etzera. Ni egon nintxen "batallón Matiaru"n. Bai aik denporak! .

Su monagillo ixen sintxen. Seiñ elixan? Getxoko elixan, Andra Mari. Santa Maria de Getxo da elixa; erria da Getxo. Oiñ esaten deure Santa Maria de Getxo, erria; es, es, es. Monagillo saspí edo sortzi urtegas asi nintxen. Eta ondiño yoten nas elixara baña oiñ es nas yoten asko. Oiñ emen es dau abaderik beres. Iru abade daus emen, baña fijo iñon beres. Villamonte, San Martín eta au itten deure euron arten.

Elixan kanpon, atzeko parten sera imintzen dau: "Danak jo, azkenak hil". Ser esan gura dau orrek? Danak yo da askena ... kittu! Es dau giau. Amabi kanpai jotzen deurenen, amaituten da eta gure biximodu bere hori ixengo san, bixi garen arten ... eta geo... kittu! m



"Nik Getxo, esautu dot telefono barik, automobil barik, esebes"

zure markarik onenak sport wear-ean

Serigrafia eta transfer



- Enpresen publiziterako oihalen inpresioa eta salmenta, ikasketa bidaia, koadrilak...
- Niki personalizatuak momentuan
- Erreklamo publizitarioak (txiskeroak, pegatinak, bolalumak...)
- Bordatu industrialak
- Aukeratu zeure kolorea arropa tintatuetan
- Grabatuak laserrean (metalak, plastikoa, egurra, larrua...)

 ATOR	ALGORTA Algortako etorb. 106 Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62	BILBO (lantegia eta biltegia) Moncada 9, 3. Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46 e-mail: atorfym@euskalnet.net	LEIOA Sabino Arana etorb. 86 Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46
--	---	---	---

“Len makal basaus, ensegida ona laguntzen. Oiñ jausten sara or bidean, da jaramonik es dotzue itten”

[uribertsoan barrena]

Udaberrikoberbotsa

Urteroko legez, Erandio aldean “Kanpamartxo” eguna ospatu da aurton. Berbots Euskara Taldeak Kukularra auzoa aukeratu du oraingoan udaberriari ongi etorria emateko, Altzaga ikastolaren magala, hain zuzen ere. Udaberriak egun eguzkitsu ederra opa zigun bertara hurreratu ginen euskaltzaleoi. Dantzak, jolasak, kirolak eta bertsoak tartekatuz ziren tradizio handiko euskal topagune jator horretan.

Testuak: Josu Arroyo, Xabier Paia eta Joseba Santxo

Bertsosaiora ordu bat eta erdietarako zegoen iragarrita. Apur bat beranduago, Erandioko Karlos antolatzaile eta aurkezle sutuak bide eman zien Erandioko Altzaga ikastolako bertsolaritzako ikasletoxi, Josu Landeta maisua gidari zutela. Josuk banan-banan kantarazi zien bertsolarigai gaztetoxi eta jendeak txalo berot hartu zituen umetxoan bertso natural bezain karismatikoak.

Gaztetoen saioak oholtzara inguraziti zituen entzule bertsotzaleak multzo bitan banatu ziren: aurrez aurre eguzkiaren beldur ez ziren sugandila eta muskerak; eta albo bateko kerizpean bertsotzaleak izan bai, baina lipotimiari errespetua zioten entzule zuhurrak.

Txikien saio ausartaren ostean, nagusien txanda heldu zen. Joseba Santxo gajartzaileak hiru bertsolarien aurkezpena egin zuen: Jokin Sorozabal, Beñat Gaztelurrutia eta Xabier Paia. Saioa maila eta erritmo onean garatu zen. Jokinek eta Beñatek euren bertsoakera dotorearen hainbat erakusgarri eskaini zituzten. Xabik bikain eutsi zion bere bertsokide bien mailari eta erritmoari, umorean eta freskuran ekarri handiak eginez. Gaietan denetarik egon zen: politikari disidenteak, Julia Roberts Korrikan, euskararekiko alergia, Armani euskal janzki tipikoen inguruan, udalekuko kanpai denda barruko arazoak: aerofagia, ilunaren beldurra eta klaustrofobia. Azken aldera, Erandioko Nahia eta Nuria soinu eta panderoz aritu ziren bertsolarien koplak doinu laguntzen. Amaiera aldera, Bizarra Lepoan eta Berbots taldeetako bertsotzaleak “koalizioan” batu (Xabik egin zuen konparazio hau bertso batean) eta bertso onei olatuarena egitea otu zitzaion. Akabera ederra egun eder bateko bertsosai ederrarentzat. m

“Olatuarena eginez amaitu zen saioa”



Karpapean Xabi Paia kantuan. Entzuleen artean arestian gidari aritutako Josu Landeta.


egin zaitez ALBEko bazkide!

Aurtongo martxoaren 23an Algortako Bertsolari Eskolak hasiera eman zion bazkide kanpainari. Hemendik aurrera gure eskualdeko bertsotzaleak aukera izango du gure bertso familiako kide izateko, bai eta senidetasun horrek ekarriko dizkion abantailak gozatzeko ere, hau da, eskolaren hileroko berripapera etxean dohainik jasotzeko, eskolak antolatutako ekitaldi guztietara dohainik sartzeko, eta urtean behin argitaratuko dugun liburuxka -eskualdean egindako ekitaldietako bertsorik onenak bilduko dituen argitalpena- jasotzeko.

Horretarako, baina, pauso bi eman behar dira.

- 1) Euskadiko Kutxako gure kontuan 2.500 pta. sartu: 3035 0221 74 221000196.1 (Algortako Bertsolari Eskola)
- 2) Zure izen-abizenak, jaioteguna, jaioterria, helbidea eta telefonoa(k) paper batean idatzi eta guri helarazi postaz helbide honetara: Algortako Bertsolari Eskola / ITXASGANE kulturunea / Karitate kalea, 1-16. Bulegoa / 48990 GETXO; edo helbide berorretara ekarri asteartean 18:30etatik 22:00etara eta gure eskolako edozein ordezkari eman.

*Oharra: honezkeron hainbat bazkide berri ditugu, baina baita arazo berri bat ere. Batzuek bankuko ordainagiria ekarri digute, baina euren datuak biltzen dituen paperik ez; halandaze, ez daukagu lagun horien helbiderik eurekin kontaktuan jartzeko. Mesedez, idatzi zuon datuak papertxo batean eta guri helarazi goian emandako helbidera. Eskerrik asko eta zorionak bertso familiaren izenean!



Xapeldar dokumentazio zentrua

10ekotxikian Andoni Egaña

- 1) Txapelketa nagusiaren urtean arduratuta al dago egungo txapelduna?
Bai, arduraturik nago. Bestelakorik esatea gezurra edo arduragabekeria litzateke. Halere, udazkena oraindik urrun ikusten dut.
- 2) Bertsolari, idazle, telebistako aurkezle, kirolari... lehendakari izateko asmorik bai?
Ez, noski. Politikaren xarma, inon izatekotan, gutxiengoan datza. Eta gutxiengoak ez du lehendakaritza eskuratzeko biderik izaten.
- 3) Egaña: bertsotan jo al duzu gaina?
Uste dut ezetz. Baiezkoan banengo, etxean geratzea nuke irtenbide bakarra.
- 4) Getxo Antzokian gustura ibili al zinen bertsolari gazteei gaiak jartzen?
Bai. Jakina baita gazteen artean gaztetu egiten garela. Kultur eta gizarte erreferentzia berriekiko arduratsu izaten irakasten du horrelako esperientzia batek.
- 5) “Batetikan korroska, bestetik herrena...” Jende asko al dabil korroska eta herrenka gaur egun Euskal Herrian?
Ez dakit... Eta gainera ez korroska eta ez herrena ez dira berez txarrak. Korroska barrua lasaitzeko premia baino ez da. Eta herrena bi hankak modu ez simetrikotan mugitzea. Biak aldarrikatzen ditut neure.
- 6) Zu bezalako plazagizon batek inoiz lotsarik sentitu al du oholtza gainean?
Askotan. Ongi ari ez garen bakoitzean. Eta horrelakoetan burua apaltzen dut nik. Lotsatu egiten naiz publikoari aurrez aurre begiratzen ere.
- 7) Zarauzko hondartza futbolari handien harrobi izan da beti. Futbolari frustratua al zara Andoni?
Hondartza, harrobi? Barka nire txobinismoa, baina Zarauzko hondartza harea finezkoa da. Han ez da harririk bat ere. Bestalde, futbolari frustratua naiz, bai. Futbolearen, poteko tomate bezalako nintzen: txarra, baina oso kontzentratua.
- 8) Jarri azken puntu bat gure artetik joandako Diego Garzia kirolariari.
Maite nuen Diego. Gizon jokatzeko zekien ume bat zen; edo ume jokatzeko zekien gizon bat. Ez nioke punturik jarriko. Bera izaten zen beti lehena puntuak jartzen. Behin esan zidan azken Txapelketa Nagusiko finalekoa izan zela bizitzan gehien disfrutatu izan zuen eguna.
- 9) Getxon sarri kantatu duzu: balkoitik, antzokian, plazan... Nolako da bertoko bertso giroa?
Getxo bertso-plaza segurua da guretzat. Formato desberdinetan egin izan ditugu saioak. Eta entzulez beti osatu izan gara. Baita behin, Erromon, txosna bateko mostradoretik aritu ginelarik ere. Plaza ona da Getxo guretzat.
- 10) Egin bertso bat nahi duzun neurrian Uribe Kostako bertsotzaleak Algortako Bertsolari Eskolako bazkide egin daitezten. Egingizun bikoitza / hor duzu gaurkoan / batetikan bertsoa / babestu kolkoan / eta bestetik Bertso / Eskolara joan / zeurea gozatzeko... / zeurea osatzeko... / taldeko giroan. m

Bertsoglifiko GALDERA

Nola du abizena 1985, 1986, 1989 eta 1990. urteetan Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan, bat-bateko atalean, finalista izan zen algortarrak?

Ondoan aukera hirukoitzeko zazpi galdera dituzu. Zure lehenengo lana erantzun zuzenak asmatzea da. Gero, erantzun zuzenetako lehenengo letrak ordenan eta elkarren segidan ipintzen badituzu beheko laukitxoetan, goiko galderaren erantzuna izango duzu. Galdera guztiak bertsolaritzaren ingurukoak dira. Eutsi goiari!

- 1) Nola du goitizena Xabier Arriaga Errigoitiko bertsolari jatorrak?
 - o Errigoiti
 - o Txiplas
 - o Plisplas
- 2) Non ospatu zen 2000ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala?
 - o San Mamesen
 - o Arriagan
 - o Euskaldunan
- 3) Zenbat oin edo errima ditu zortziko txikiak?
 - o Hiru
 - o Lau
 - o Zortzi
- 4) 1989ko Txapelketa Nagusian irabazle, muxikar peto-peto... Nor dugu bera?
 - o Enbeita, Jon
 - o Kaxiano
 - o Lopategi, Jon
- 5) Zein hitz falta zaio Bilintxen puntu ezagun honi? «Loriak udan bezela / maite det dama gazte bat.»
 - o Giltza
 - o Sitsa
 - o Ihintza
- 6) Zer jantzi nahi luke Egaña aurtentz, hirugarrenez jarraian?
 - o Txapela
 - o Gorbata
 - o Maillot horia
- 7) Bertsolari hauetako zeinek kantatu zuen Txirritarekin?
 - o Fernando Amezketa
 - o Mañukortak
 - o Uztapidek

IZASKUN OOOOOOO

([iruzketa: TELURU])



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Antxoak piperradarekin

Modu askotara presta daiteke itsasoko bitxi hau, ohizkoak dira albarlatuak, frijituak, kazolatxoan... Ale honetan, Berangoko Basotxuko Aitor Lolesen errezeta bat ekarri gure izan dut: antxoak piperradarekin. Lehenengo, piperrada prestatu behar da. Piper gorria, berdeak eta kipula ondo txikitu eta olibazko olioan, su ahulean ordubetez egiten itxiko dugu. Bestetik, antxoak garbitu ondoren erditik zabaldu eta arantza nagusia kendu. Labean sar daitekeen plater batean ipini bata bestearen ondoan, ez gainean. Piperrada eginda dagoenean goilara batez antxoaren gainean zabaldu. Labean sartu aurretik ozpin txorrotada eder bat bota gainetik. Eduki labean, 180 gradutan, hiru lau minutuz eta segituan mahai gainera. On egin!

osagaiak (2 lagunentzat)

700 gramo antxoa • piper gorri bi • piper berde bi • kipula bi
basoerdi ozpin • olio • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

Jatetxean kontuan hartzeko aholkuak

1. Jatetxeak kontserbazio sistema on bat ez badauka, ez eskatu ardo zaharrik, nahiz prezio onean egon.
2. Eskatu beti ardo botila mahaian jartzea. Ardo zuriek kubiteran egon behar dute beti.
3. Izan konfiantza binoteka klimatizatu edo bodega duen jatetxean.
4. Ez zaitetz markarik gabeko txupito, fruta likore edo patxaranaz fidatu. Hobe da marka ezagun bategatik gehiago ordaintzea, edo kalitatezkoa ez bada edaria itzultzea.
5. Ez zaitetz fidatu etiketarik gabeko etxeko ardoaz, ezinbestekoa da bodegaren izena jakitea.
6. Ez zaitetz fidatu menua kontuan hartu barik ardo bat eskaintzen duen jatetxeaz.
7. Ez zaitetz fidatu marka oso ezagunak baino ez dituen jatetxeaz.


Temperaturarik egokienak

- Beltzak 16 eta 18 gradu artean edan behar dira.
- Zuriak 8 eta 10 bitartean.
- Gorriak 12 gradutan.

Ardoak temperatura hauetan edatea oso garrantzitsua da arrazoi nagusi bigatik. Temperatura hotzagoan edaten badira aroma kopuru asko galtzen dira, temperatura beroagoan edaten badira berriz, alkohola errez lurruntzen da eta jario etilikoek usainema eta dastamena erasotzen dituzte. Horregatik da hain garrantzitsua (ardo bat bere osotasunean gozatu nahi badugu), edateko temperatura zaintzea. m

David Ríos

Goi mailako koktelgilea



David lanean

Duela gutxi Bombayko gyn tonic onenaren saria eskuratu du Davidek. Oso gaztea bada ere, koktelgintzan aditua da honezker eta puntakoen artean dabil. Algortan bere anaiarekin lantzen duen tabernan, Manhattan-en, hartu gintuen.

Gurean ez dago koktelak edateko ohitura handirik...

Halaxe da, ohizko kubata edota gyntonica kenduta ezer gutxi eskatzen da. Kultura hau beste leku batzuetan ez bezala, ez dago apenas hedatuta hemen. Niri adibidez, atzerriko ikasleak, estatubatuarrak batez ere, tabernara etortzen zaizkidanean, zuzenean eskatzen didate Dry Martini bat. Badakite zer den, koktelak ezagutzen dituzte.

Zergatik gertatzen da hori?

Egia esan ez dakit, baina uste dut gremio honetan beharrean dagoen jende askok kalte egiten diola lanbideari, profesionalak ez direlako. Leku askotan adibidez, ez dute edaria bezeroaren aurrean prestatzen, batek ez daki zer jarri dioten. Batzuk kalitate gutxi edariak darabilte, edo gehigizko alkohola... Jende askok koktelak halabarrez alkohol asko daukatela uste du baina egia beste bat da. Nik adibidez alkoholik gabekoak ere prestatzen ditut, aukerak amaigabeak dira.

Zein da zure espezialitatea?

Denetarik egiten dut eta baita esperimintatu eta ikertu ere. Baina hobeto moldatzen naiz long drink-ak egiten, hau da, tragu luzeak.

Azalduiguzu, zer da koktel bat?

Labur esanda, kalitatezko zenbait edari nahastuz eta astinduz lortzen den edari hobea.

Honezker lehiaketetan parte hartzen hasia zara...

Bai, duela gutxi Bombay prestatuko gyn tonic onenaren saria eskuratu nuen. Orain Malaga aldean antolatuta den estatu mailako lehiaketara joateko gonbitea jaso dut. Hala ere, denbora gutxi daramat lehiaketan mundu honetan. Niri joatea gustatzen zait ikasteko aukera daukadalako. Adinagatik eta, azpiko kategorietan lehiatzeko aukera daukat baina nahiago dut goi mailakoetan parte hartu, hau da, taberna buruekin, onenekin... Gehiago ikasten da eta gainera ez naiz txarto moldatzen.

Noiz da koktel bat primerakoa?


Buf... Gauza asko kontuan hartu behar dira. Hasteko zelan prestatzen duen tabernariak, norberak jasotzen duen tratua, koktela bera armoniatsua eta bezeroaren gustukoa izatea... Gero jakina, badu berebiziko garrantzia norekin dago bat, non, zer ordutan... m

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15

48990

Loteria Sopela

Iparagirre 6, Sopela

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

*DREAMS: Parte bi vodka, parte bat cointreau, lima ikutu bat, parte bi esne eta beste bat marrubizko jarabe. Koktelaren prestatzen da.

Juan Garate

26 urte daramatza “surfeatzen” eta Juanen aurpegian gazteen itxura eta keinuak oraindik nabariak dira. Getxoko ikastetxeetan hezkuntza fisikoko eskolak surfarekin eta Euskadiko Surf Federazioan egiten duen lanarekin tartekatzen ditu, betidanik kirolari lotuta. Juan Garateren curriculumak edukitzea askori gustatuko litzaieke, Euskadiko txapelduna, 3.a Europako Txapelketan, Euskadiko Selekzioaren hautatazilea. Hauek, besteak beste, Juanen palmaresaren zati bat baino ez dira.

Testua: Gorka Orueta / Argazkia: Mikel Martinez

Hezkuntza fisikoko eskolak emate dituzu, surfekoak ere bai, federazioan..., lotu barik zabilta

Hala egon behar ezta? Jejejeje. Surf ikastaroak udaberrietik udazkenara arte ematen ditugu, negua nahiko gogorra da haurrentzat baina eguraldia hobetezen hasten denetik nahikotxo ikastaro izaten ditugu. Asteburu honetan ematen ari naizen ikastaroa Foru Aldundiak lagundutakoa da, 10 orduko ikastaroa, teoria pixka bat eta praktika, praktika eta praktika.

Surfen teoriarik irakasten al da?

Bai, surfen arau batzuk daude eta horiek dira irakasten ditugunak. Uretara nola eta nondik sartu behar diren, non kokatu eta taula gainean jartzeko teknikak baina ordu gehienak uretan pasatzen dituzte praktikatzan. Gauza gutxi batzuk baino ez ditugu irakasten, baina nahikoa izaten dira euren kabuz has daitezten.

Udaberrietik udazkenara bitartean ikastaroak ematen dituzuela esan diguzu. Ikastaro asko egoten al dira

Ikastaro asko eta monitore asko ere badabiltza surf eskolak ematen eta horretaz kezkatuta gaude Euskadiko Federazioan.

Kezkatuta? Zergatik ba?

Ba, denetarik dagoelako, surfean aritzen den edozeinek ematen dituelako eskolak, eskaintzen den zerbitzuaz arduratuta gaude. Horretarako, Euskadiko Federazioan “label” modukoa atera nahi dugu. Azken batean, “label” horrekin gutxieneko kalitadedun ikastaroak ziurtatu nahi ditugu federaziotik.

Ez dut honekin esan nahi ikastaro txarrak ematen direnik, oro har eskaintzen den maila ona da eta. Labela maila garantizatzeko bide bat da, besterik ez. Federazioan labelarena epe ertainera planteatzen dugu; orain beste gauza batzuekin ari gara.

Europar Federazioarekin dituzuen arazoak bezala...

Adibidez, eta hau bai dela serioa!

Europako Surf Federaziotik kanpo geratu zarete, zer gertatu da?

Ba historia luzea da, gero....

Orrialde hau baino ez dugu... saiatu zaitetz, behintzat.

Beno, ba, hasieran ez zegoen ez Euskadiko Federaziorik ez Espainiarik ere ez eta nazioarteko txapelketetan Euskadikoak baino ez ginen lehiatzen. Portugaleko txapelketetan, 1987 urtean edo, Euskadiko Surf Federazioa Europakoaren partaidea bihurtzea lortu genuen eta orduan aurrera Euskadi zen nazioarteko lehiaketetan konpetitzen zuena, eta Europa mailan lehenengo hiruren artean egon gara beti; ez dago txarto, ezta?

Ba ez, nahiko ondo esango nuke nik. Non dago arazoa orduan?

Euskadiko Federazioa Europarrearantz sartzea ez zen gauza erraza izan, beste federazio batzuk Euskadikoaren kontra agertu baitziren, Frantziakoa, adibidez, agian uste zutelako iparraldean dauden surfariak Euskadikoan integratzeko asmoa geneukalako, eta ez da horrela bertako surfariak nahi izan ez zutelako. Eire ere kontra agertu zen, arraroa egin

zitzaigun baina halaxe da eta Galesekoa ere Euskadiko Federazioa Europarrearantz integraztearen kontra agertu zen, baina tira, azkenean lortu genuen. Urteak pasata Espainiako Federazioa sortu zuten. Dakidenez zerbait arraroa gertatu omen zen. Federazio bat sortzeko beharrezkoak diren gitxienekoak ez zituzten betetzen, baina egun batetik bestera lortu zuten, klub fiktizioak sortuz eta halako gauzak eginez. Gu ez gaude Espainiako Federazioaren aurka, hori argi geratu dadila, ahal beste federazio sortu dituzatela guztiak kirolaren onerako baitira baina Euskadikoa defendatzen dugu, lehenengoa izan delako eta Europa osoan erreferentia izan delako ere bai.

Orduan Espainiako Federazioa agertu denean hasi dira arazoak...

Bai, Espainiako Federazioak gurekin ez du inolako harremanik eduki izan nahi, ez digute galdetu ere egin bertan sartu nahi dugun; gure ustetan, legez kontra doan araudia egin dute eta Europako Federazioan sartu direnean gu bertatik bota gaituzte. Ez gaude ziur, baina atzetik zerbait egon den susmoa dugu. Nola ulertu, bestela, aspaldidanik dagoen federazio bat botatzea sortu berria den bat sartzen uzteko?

... eta nola dago arazo hau orain, ezer egin al duzue?

Epaitegietara eraman ditugu bai Europako Federazioa, gu kanpoan uztea legez kanpoko dela uste dugulako eta bai Espainiakoa, onartu dituzten estatutuak zorrotzegiak direlako eta federazioak arautzen dituen legearen aurka doalako. Ez da gauza batere erraza izango, baina hortan gabilta eta ez dugu etsiko. m

“Ez gaude Espainiako Federazioaren aurka, hori argi gera dadila, ahal beste federazio sortu dituzatela, guztiak kirolaren onerako baitira baina Euskadikoa defendatzen dugu, lehenengoa izan delako eta Europa osoan erreferentia ”

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Lau bide 7 • Tlf/Fax: 94 676 52 40 • SOPELA
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

I

Iñaki

Bitxitegia



OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta



TXIBERRI edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Lan arloan sasoi ezin hobean zabilzta eta zure asmoak aurrera ateratzeko jarraia baikor horrekin jarraitu ezker edozein gauza lor dezakezu. Baina argi ibili! Zure inguruko pertsona batzuk, zure helburuak suntsitzen saiatuko dira eta.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Pertsona bat ezagutuko duzu eta adiskidetasun handia sortuko da zuen artean. Neskalagun edo mutil lanik ez baduzu, aukera ona. Jarraitu zure bihotzaren aginduak eta fruitu onak jasoko dituzu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Proiektu berri bat proposatuko dizute, adi egon zaitetz interesgarria izan daiteke eta. Oraindik ez baduzu zioriontsu egiten zaitun pertsona ezagutu, zabaldu zure bihotza eta begiak; pertsona hori ez dabil oso urrun.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Ez zaitetz samurkor izan; pertsona guztiak ez dira gaiztoak. Emaiozu beste aukera bat ezagutu duzun horri eta ez dizu atzera hutsik egingo. Zaindu zure burua eta baztertu azken boladako gehiegikeriak.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Bikotetik baduzu krisialdi gordina jasan dezakezue. Borondatea jarri zure aldetik eta saiatu zaitetz besteari entzuten, denboraldi txar hau gainditzeko nahi baduzu. Diruari dagokionez, egoerak apurka- apurka hobera egingo du.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Azken bolada honetan ez zabilzta bat ere ondo; saiatu zaitetz baikorragoa izaten eta ez ahaztu garai txarrak beti gelditzen direla arztean. Atera kalera eta gozatu zure adiskideen laguntasuna.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Gauzak ez dira beti nahi bezala ateratzen baina lasai, ez galdu gogoa eta eutsi zure bideari laster ikusiko dituzulako zure ahaleginen emaitzak. Maite zaituzten pertsonak zu laguntzeko prest daude; onartu haien borondate ona.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Zeure ausardiak fruitu onak eman ditu, goza ezazu momentua baina burua galdu gabe. Diru proiekturen bat baldin baduzu aurrera jarraitu, izarrak zure alde dituzu eta.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Osasun arazoak izango dituzu, batez ere, burua eta sorbaldan. Ez dira larriak izango baina atsedean sasoi bat hartzea komeni zaizu. Bestalde, kontuz egiten dituzun diru gastuekin, burua erabili eta ez xahutu daukazun diru apurra. Onartu aholku onak.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zu eta zure azukre koskorren arteko harremana izugarri sendotu da azken garai honetan baina kontuan izan, irango badu, maitasuna egunez egun elikatu behar dela. Buruan darabilzun egitismo garrantzitsu hori aterako da.

IRATZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)
Inguruko pertsona batek min handia emango dizu. Saiatu zaitetz indartsua izaten eta ez utzi zure burua zapaltzen. Diru arloan momentu on batean zabilzta, baina gogoratu diruari ere onura ater behar zaioa.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Gauzak ez dabilzta zuk nahi zenukeen bezain ondo. Egoera sakonki aztertu behar duzu eta zure bizitzan gauza batzuk aldatu. Zure esku dago; arriskutzen ez duenak nekez lortuko du ezer.

[komikia]



MUNGIA


oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

[flash back]



Bitor Eguetola

Juan Bautista Zabala Eskola 1953-1954 Eskola zaharraren aurrean hartutako argazkia duzue hau. Doña Martina eta Doña Petronila maistren ikasleak azaltzen dira bertan: txikienak Doña Martinarekin eta nagusiak, Doña Petronilarekin. Ikaslerxe hartan lau gela zeuden eta gela bakoitzeko irakasle bat. Gela bi neskenzat ziren eta beste biak mutilentzat. Garai hartan neska-mutilak banaturik hartzen zizuten eskolak eta den-dena bereizturik egiten zuten. Gaur egun ezagutzen dugun ikaslerxe, 1960ko hamarkadaren hasieran eraiki zuten eskola zaharra bota eta gero.

Eretratuan, goitik behera eta ezkerretik eskuinera: Ana Mari de Diego, Itziar Iguai, Matie Aginako, Begoña Bernardez, Carmen Arana, Marisabel Aranbarri, Rosi Arana, Arantza Iguai, Mari Luz Gil, Carmen Carrandi, Ana Mari Gorozika // Mari Feli Zuazo, Mari Feli Fernández, Mertxe Vázquez, Amaia López, María Luisa Ato, ?, Carmen Seco, Margari Infesta, Pili Bretos, Rosi Fernández, ?, Rosi Basurto // María Angeles Mendizabal, Ester Ardeu, Begoña Seco, Gregoria Blanco, Isabel Ormaetxea, Arantza Perez, Mari Nieves Serrano, ? Matie Suarez, Marije Bueno // Nieves Suarez, Begoña Martín, Silvia..., Matie San Martín, María Anegales Bilbao, Maribel Ardanza, Begoña Vázquez, Margarita Fernández, ?, Maribe López, Conchi Fernández, Asun Basurto, Mari Luz Santamaría, ?, Amaia Baralazarra, Dolores Ato.